

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gaur egun Gipuzkoan taxi-zerbitzua telefono-deien edo geltokietako eskaeren bidez funtzionatzen du gehienbat. Horrek hainbat arazo sortzen ditu:

- Ez dago aplikazio zentralizaturik eskaerak kudeatzeko.
- Bezeroak ezin du aurrez jakin nor den bere gidaria, ezta zenbat denbora itxaron beharko duen ere.
- Ezinezkoa da aurrez bidaia bat programatzea (ordua eta eguna zehaztuz).
- Ordainketa gehienetan eskudirutan egiten da, eta horrek segurtasun-eta erosotasun-arazoak ekar ditzake.

Gure proposamena:

TaxiApp Gipuzkoa mugikorreko aplikazio baten bidezko taxi-zerbitzu berritzailea da, erabiltzailearen eta gidariaren arteko harremana digitalizatuz eta erraztuz.

Nola funtzionatzen du?

- Erabiltzaileak aplikazioan sartzen da eta helmuga, eguna eta ordua aukeratzen ditu.
- Aplikazioak eskaera guztiak plataforma komun batean erakusten ditu, eta gidariak eurek hauta dezakete zein eskaera onartu (ez da automatikoki esleitzen).
- Horrela, gidari batek, adibidez, bere ibilbidearen inguruan dagoen eskaera bat aurrez programatu dezake, ibilbidea hobeto antolatuz eta denbora optimizatuz.
- Eskaera onartu ondoren, erabiltzaileak gidariaren informazioa jasotzen du eta autoa bere bila abiatzen da.
- Bidaia amaitutakoan edo hasterakoan, ordainketa automatikoki egiten da aplikazioaren bidez, erabiltzaileak aurrez txartel baten datuak sartu edo saldo bat kargatuta izan behar duelarik.
- Gidariak dirua jasoko du automatikoki aplikazioaren bidez, bere kontu korrontean, sistemak tarifaren arabera kalkulaturako zenbatekoa transferituta.

Tarifen sistema:

Aplikazioak kilometro eta denboraren arabera tarifa dinamiko bat erabiliko du, Gipuzkoako taxi-ordenantzen arabera egokitua. Prezioa bidaia hasi aurretik bistaratuko da, bezeroak argi izan dezan zenbat ordainduko duen gutxi gorabehera.

Fidantza edo erreserba-sistema:

Aurrez programatutako bidaietan, erabiltzaileak fidantza txiki bat ordaindu beharko du (adibidez, %10), eskaera ez bertan behera uzteko berme gisa.

Segurtasuna eta fidagarritasuna:

- Gidari eta erabiltzaile guztiek profil egiaztatuak izango dituzte.
- Aplikazioak GPS bidezko jarraipena eskaintzen du bidaia osoan.
- Balorazio-sistemak kalitate eta konfiantza handiagoa bermatzen du.
- Eskudirurik gabeko ordainketak segurtasuna handitzen du, bai gidariarentzat bai bezeroarentzat.

Gure eskaintza berritzaileak:

- Bezeroek taxi bat aurrez erreserbatzeko aukera izatea.
- Gidariak eskaerak hautatzeko askatasuna edukitzea, ibilbideak optimizatuz.
- Ordainketa digital eta automatizatua, erosoagoa eta azkarragoa.
- Segurtasun handiagoa profil egiaztatu, ordainketa elektroniko eta GPS jarraipenari esker.
- Komunikazio zuzena gidariaren eta bezeroaren artean aplikazioaren bidez.

Balio erantsia:

- **Kuantitatiboa:** denbora aurreztea, ibilbide eraginkorragoak, eta ordainketa automatikoak kudeaketa-kostuak murriztea.

- **Kualitatiboa:** erabiltzaile-esperientzia hobetua, diseinu intuitiboa eta segurtasun handiagoa.